



130. URTEURRENA

2017an, Dbusek bere 130. urteurrena ospatzen jarraitu du ekintza gehiago eginez, eta Konpainiaren egunerokoan, historian eta nortasunean parte hartzen duten pertsona guztiak inoiz ez bezala inplikatur.

Donostian zerbitzua ematen hasi zenetik 130. urte bete dituela ospatuta, Dbusek azpimarratu nahi izan du hiriari egiten dion ekarpena, garraio hurbila, irisgarria eta ekologikoa den heinean, bere emaitza onengatik eta iraunkortasunarekin duen konpromisoagatik nazioartean saritua izan baita.

Jarduerak etengabe egin dira, 2016ko abuztuaren 28an hasita, egun horretan sortu baitzen Konpainia, eta handik urtebetera bukatuta.

Deskubritu Dbus eta Hiri Berdea izan dira 2017an jardueren ardatza izan diren bi bloke tematikoak.

1 EMAN IZEN BAT ZURE AUTOBUSARI

Urgulleko sugandila, hagina, martin arrantzalea eta Artikutzako desman iberiarra izan ziren Dbuseko autobus erabiltzaileek SOLARIS markako Urbino Hybrid 12 lau autobus hibridoetarako aukeratu zituzten lau izenak. Dbus-ek Cristina Enea Fundazioarekin batera antolatutako “Eman izen bat zure autobusari” kanpainaren barruan aukeratu ziren izenak.

Hilabete batean, ehun bat erabiltzaileek bozkatu egin zuten proposatutako 8 landare eta animalia autoktonoetako bat aukeratzeko, **ingurumenarekiko errespetua eta bizi ohitura osasungarriak**, hala nola garraio publikoaren erabilera helburu zuen kanpaina baten barruan. Horrela, autobus bakoitzak aukeraturiko izena darama jada identifikatuta bere errotulazioan.




2 PERCHING

2016ko 2 edizioen arrakastaren ondoren, martxoan eta ekainean Loidi barietateko tomate hazien eta hainbat entsalada hostoren hazien poltsak zintzilikatuko ziren autobus hibridoetako heldulekuetatik, Dbus-eko erabiltzaileek hartzeko eta etxean landatzeko.

Perching jardueren helburua da **garraio publikoaren erabilera eta bizi ohitura osasuntsuak sustatzea**, bereziki ingurune ohikoenean. Aurreko edizioetan bezala, **Cristina Enea Fundazioarekin elkarlanean** egin ziren jarduera horiek.

Guztira, sasoiko haziak zituzten 2.000 poltsa banatu ziren edizio bakoitzean, hau da, **8.000 poltsa guztira, 2016 eta 2017 urteen artean**. Haziak Dbusen flotako autobus hibridoetan banatu ziren, ingurumenarekin errespetutsuagoa den teknologia baitute, eta hiriko zonalde guztietako lineetan ere bai.



3 PERTSONAK DARAMATZATEN PERTSONAK

“Pertsonak daramatzaten pertsonak” da **Dbusek enpresako enplegatuen lana balioesteko** eta donostiarrei gidarien irudi gizatiarra goa helarazteko abiarazi duen kanpainaren leitmotiv-a.

Kanpainak Dbuseko gidari askoren istorioak biltzen ditu; **gidarien kontakizun laburrak dira, euren eguneroko lanaren gainean ez dakizkigun gauzak eta haien kezkak eta bizipenak azaltzen.** Ekimen honen helburua da donostiarrek pixka bat gehiago ezagutu eta ulertu ahal izatea gidariak, pertsonak garraiatzen dituzten pertsona horiek, egunero egiten duten lana eta egunero bizi dituzten egoerak.

Markesinetan, autobus batzuen kanpoaldeko errotulazioan eta autobusen barruko pantailetan egon da presente kanpaina. Sare sozialetarako bideo labur batzuk ere sortu dira, non autobus gidariak egunero Dbusen egiten duten lanaren gainean hitz egiten baitute. Dbusen Youtube kanalean eta <http://historiasdbus.eu/> atarian ere ikus daitezke bideo horiek, eta leku horietan ere **hiritarrek beraiek Dbusen izandako bizipenak eta oroitzapenak kontatu ahal izan dituzte.**



<http://historiasdbus.eu/>

4 #NikEreDbus KANPAINAREN AMAIERA

Realeko lehen taldeko jokalariek eta bere jarraitzaile leialenak izan ziren #NikEreDbus kanpainaren azken bideoko protagonistak, Joseba Zaldúa eta Xabi Prieto izanik parte hartzaile nabarmenenak. Anoetarako bidaia autobusean, partidaren aurreko eta ondorengo giroa eta lagunen eta senideen ondoan bizi izandako uneen **oroitzapenik berezienak** ere Dbusen historiaren zatia dira.



5 OROITZAPENEZKO JAI KOTXETEGIETAN

2017ko ekainaren 10ean I 30. urterreneko oroitzapenezko jai egin zen Kotxetegieta. Jaian, oraingo langileek eta erretiro hartuta daudenek Dbusen oroitzapenak partekatu ahal izan zituzten, beren senideekin eta lagunekin batera.



I 30. urterrenaren programa osoa eta egindako jarduerak www.dbus.eu/I30-urteurrena/ orrialdean daude ikusgarri.



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA

Cero emisiones
100% eléctrico

izafize
tobús del futuro

Creado para el bienestar de los ciudadanos

d-bus

WC